

## Goierri eusten



IRRATIA  
Arantza Gutierrez Paz

**I**railleko azken astelehen programazio berria estreinatu zuen Ataun Irratiak. Hilabete bat lehenago, berriz, beste berritasun bat iragarri zuen, saio guztiak biltzen dituen Nahibezala plataformaren diseinuaren gaurko-tzea, alegia. Audioen bilduma ez ezik, bideoteka ere eskaintzen dute web orrian, baita saio edo eduki bakoitzaren inguruko informazioa ere; gainera, dena klik batean eskuratu ahal du entzuleak, ordenagailu, tableta edo sakelakoetara egokituta. Esango nuke komunikabide handiago batzuek duten webgunea baino askoz hobea

dela Goierriko irriti txiki horrek eskaintakoa, nabigatzeko erraza eta erakargarria. Irratiz irriti surfeatzen dudan honek askotan arazoak ditu bereizteko oraindik entzungai dauden saioak edo programazioak oso zaharkiturik geratzen diren erakusleho digitaletan. Emanaldiek jarraitzeko lan nahiko eta soberakoa dute ballabide gutxirekin eusten dioten tokian tokiko zenbait irratik!

Ez dakit hori den eskualde berean dauden Goierri Irrati Telebista eta Segura Irratiaren kasua. Lehenengoaren webgunean, zuzeneko emanaldia baino ez dugu eskura; euska-

razko kateen altzindarietako bat denari dagokionez, egunez eguneko programazioa iragarri arren, zaila da zenbait saiotako informazioan sartzea. Horrek, ordea, ez du galarazten beren helburu nagusia betetzea: hurbileko informazioa herritarrengana helaraztea... Bertako euskalkian ematea ere!

Ataun Irratiak, bere aldetik, herrian eta inguru hurbilenean gertatzen denaren berri emateaz gainera, ataundarrei konpainia eskaintzea du helburu, eta horretarako, bertan ekoiztitako irratsaioez gain, Arrosako edota sarea osatzen duten irratiek egindako dukiak eskaintzen

ditu. Ibilbide berrian, goizero uhinataraturiko *Abaraska* magazina eta euskal kulturako sortzaileen elkarrizketetan oinarrituriko *Kultur Zast* podcasta gehituko zaizkio ibilbide berria hasten den *Bide Ertzean* betearnoari. Aurreko urteetan bezala, formula musikalaren bidez lortzen dute 24/7 programazioa. Duela urtebete, aitortu nuen miresgarria iruditzen zitzaidala halako irriti txiki batek bizirautea... Baina ez dut inozo agertu nahi, eta badakit irudi optimista eta erromantiko horren atzean badagoela irriti-zale gazteen lana, askotan *musu truk* egindakoa. Babes ditzagun! ●

## Nor kezkatzen da euskara mailaz?



PANTAILEN ARTETIK  
Urtzi Urkizu


**I**railaren 20tik 28ra 72. Donostiako Zinemaldian gertatutako en artean hainbat kontu ekar daitezke gogora. Zezen(keta) arteko lerroburuetatik aparte, izan ziren oharkabeago joan ziren uneak. Luzerako emango luke, adibidez, *Hedabide berriak: zinema eta jaialdiak sare sozialen garaian* mahai inguruan entzun zirenak azaltzeak. Wendy Yde, Guy Lodge, Pepa Blanes eta Diego Battle mintzatu ziren. Aipatu zuten, esaterako, Letterboxd sare soziala erakargarriagoa izan daitekeela X (Twitter) baino, filmen inguruan aritzeko. Eztabaidatu zuten, halaber, zer eragin izan dezaketen *influencer* delakoek ikus-entzunezko lanak zabaltzeko orduan, eta nola horrek ez duen zerikusirik kazetari edo kritikari espezializatu batek egin dezakeen ekarpenarekin. Instagrameko bideo laburrei edukia doan emateaz ere aritu ziren. Galdera bat argia da: zer balio du *influencer* batek film baten gainean egiten duen iruzkinak, atzetik dagoen konpainiak ordaindu baldin badio?

Euskal Zinemaren Gala Handia

irailaren 24an ospatu zuten Viktoria Eugenia antzokian. Orduko hartan entzundakoetatik azpimarragarriena Edurne Azkarateren hitzak izan ziren: «*Euskal zinema* deritzon horri euskara falta zaio, eta euskal kulturak filmak ditu faltan». Hori da bete-betean jotzea. Baina entzun ziren bestelakoak ETBk antolatutako gala hartan. Galaren aurreko tapiz gorrian, adibidez, gaztelaniaz hizketan jarri zituzten *Golazen*-eko aktore batzuk —ETB2n egin zuten emanaldia, diferituan—. Gero, Gorka Aginagalde galako aurrekoaren aldetik makina bat akats entzun ziren euskarazko hitzetan; ala *Markina* bat ziren? Fikzioa ala fikzioa? Dena esatera, Andoni Aldekoa EITBko zuzendari nagusia edozein agerraldi publikotan euskaraz irakurtzen entzun duenak badaki akatsez zer bait.

**‘Goenkale’-ren ostekoak.** Irudikatu besterik ez dago malla horretako ekitaldietan eta maila horretako arduradunek gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza propio batean hain trakets hitz egingo balute zer-nolako oihartzuna izango zuteen: Interneteko sare sozialetan, komunikabideetan, tertulietan, iritzi emaileen ahotan... Baina euskaraz dena da libre. Euskaraz eginez gero, baten bati axola al zaio zer maila duen hizkuntzak?

Euskararen mailaz badira kontu gehiago gogoratzeko. Egunotan bete dira 30 urte ETB1 *Goenkale* folletoia ematen hasi zenetik. Jose Luis Aranguren *Txiliku* telesailaren euskara arduraduna izan zen azkeneko bederatzirteetan. Hark kontatua da *Goenkale* eta *Aitarene* telesailek izan zutela azken aldiz euskara arduradun edo euskara zuzentzaile bat. 2016. urtetik



Edurne Azkarate Bultzada saria jasotzen, irailaren 24an. MAIALEN ANDRES / FOKU

**Zentzuzkoa litzateke Euskal Telebistak fikziozko hurrengo proiektuetan euskara arduradunaren figura berreskuratzea. 2016tik hona ez da halakorik izan.**

aurrera ETBk egin dituen telesailetan ez da halakorik izan. Euskal komunitatean iritzi zabaldua da *Goenkale*-ren euskara oso ona zela, ekarpena egin zuela telesailak euskararen ikuspegi- tik —Anjel Lertxundi egindako lana goraiatzeko dute horretaz zer bait badakitenek—. Euskararen doinua bateratua eta egokia zen Arraldeko pertsonaien ahotik irteten zenean. Gidoietan eta platoko grabakete-

tan, euskara arduradunik ez badago, nabari al da, ba? Galdetuko du baten batek. Begiratu besterik ez dago *Ixaso* telesailarekin zer gertatu zen. Zuzendaria Antonio Díaz Huerta madrildarra zen; euskaraz bi hitz ez ditu jakingo. Eta aktoreek bakoitzak bere modura hitz egin zuten; hau da, kostaldeko herri txiki batean, bakoitza bere euskalkian. Argi da ekoiztetxe batzuetan saiatzen direla gauzak ondo egiten. Baina zentzuzkoa litzateke ETBk fikziozko hurrengo proiektuetan euskara arduradunaren figura berreskuratzea. Euskaraz gutxi ekoizten baita, oso gutxi. Eta euskarazko lan gutxi horietan, hizkuntzaren maila hala moduzkoa bada, aktoreen esku utzi behar bada dena —euskara zuten eta egokiaren ardurak ez luke haiena izan behar—, ikusle batzuk uxatu egingo dira, erakarri baino gehiago. ●